



## GOBERNU BATZARRA

2022.05.24

**Alkatea:**

**Olatz Peon Ormazabal**

**Bertaratutako zinegotziak:**

**Xabier Balerdi Tolosa  
Xarles Iturbe Pasaban  
Begoña Tolosa Mendia  
Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria**

**Ez da bertaratu:**

**Patxi Amantegi Zubiria**

**Idazkaria:**

**Begoña Garmendia Vazquez**

**Kontuhartzaile akzidentala:**

**Paulino Alonso Eraso**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita biko maiatzaren hogeita lauan, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:

1. Akta hau onartzea: 2022ko maiatzaren 17koa.
2. Tolosako udalaren eta liburuzain languntzaileen formazioarako akademiaren arteko lankidetz hitzarmena onartzea.
3. Tolosako Gudari kalea berrurbanizatzeko Tolosako Udalean aurkeztutako abala itzultzea.
4. Behin betiko onespina ematea «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko urbanizatzeko jarduketa-programari.
5. Behin betiko onespina ematea «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko urbanizatze jarduketa programa egikaritzeko hirigintza-hitzarmenari.
6. Onartzea Zumardiaundian gurpilgunea deituriko proiektua gauzatzeko jabari publikoaren erabilera baimentzea Zumardi elkarteari.
7. Onartzea Tolosako Usabalgo 3. faseari dagokion kirol instalakuntzen eta hiritartze osagarriari dagozkion obren lizitazioa huts deklaratzeko.



## **1. AKTA HAU ONARTZEA: 2022KO MAIATZAREN 17KOA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2022ko apirilaren 17an egindako ohiko batzarraren akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

## **2. TOLOSAKO UDALAREN ETA LIBURUZAIN LANGUNTZAILEEN FORMAZIOARAKO AKADEMIAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA.**

### **AURREKARIAK**

Liburuzain laguntzaileen formaziorako Akademiak, bertako ikasle batek Tolosako udalean praktikak egiteko proposamen bat luzatu du. Horretarako, Lankidetzaren hitzarmen bat sinatzeko proposamena egin du. Praktikaldiaren ezaugarriak hauek dira:

- Praktikaldia Udaleko liburutegian izango dira ( haur zein helduena).
- Praktikaldiaren epea 2022ko maiatzaren 30etik 2022ko abuztuaren 12ra izango da.
- Ikaslearen tutorea Susana Larre Muñoz izango da.
- Akademiak proposatutako ikaslea Elisabeth Perez Calvo da.

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **E R A B A K I D U**

**LEHENA.**- Onartzea Liburuzain laguntzaileen formaziorako Akademiaren eta Tolosako udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena, udalean praktikak egiteko, honako klausulen arabera:

#### **1. Praktikak egiteko baldintza orokorrak:**

- *Lanez kanpoko praktikak Centro Auxiliar de Biblioteca, SLU akademiako **Elizabeth Pérez Calvorentzat** dira, eta ezingo ditu haren ordeztu beste inolako inork egin.*
- *Ikaslearen eta liburutegiaren artean ez da inolako kontratu harremanik, ez eta harreman ekonomikorik ere izango; hitzarmen hau baino ez. Praktikak amaitzen direnetik aurrera, ikasleak eta liburutegiak ez dute inolako harreman administratiborik, ez eta ekonomikorik ere izango.*
- *Ikasleak, praktikaldian, prestakuntza jaso duen lanbide-eremuko (liburutegiko laguntzailea/teknikari laguntzailea) zereginak egingo ditu, bere prestakuntza akademikoarekin eskuratutako jakintza teorikoa eta praktikoa osatzeko.*



- *Praktiken iraupenari dagokionez, gutxienez hilabeteko nahitaezko aldia ezartzen da, eta ikasleak epe hori hiru hilabetera luzatu ahal izango du hala nahi badu, betiere liburutegikoak ados badaude.*
- *Erakunde laguntzaileak ezarritako arauak bete beharko ditu ikasleak. Praktiketarako ordutegia erakunde laguntzaileko liburutegien eta ikaslearen artean adostuko da, liburutegiaren beharren eta ikaslearen prestasunaren arabera.*
- *Ikasleak, praktikak amaitu ondoren eta ezarritako gutxienezko hilabeteko epea bete ondoren, egindako praktika horiek egiaztatzen dituen ziurtagiri bat jasoko du, erakunde laguntzaileko liburutegiak edo erakunde laguntzaileak berak emana.*
- *Dokumentu bat sinatuko da, eta dokumentu horretan adieraziko dira praktiketako ikaslearen datuak, hautatutako liburutegia eta praktiken iraupena.*

## **2. Aseguru-kontuak.**

- *Erakunde laguntzaileko liburutegiak ez du bere gain erantzukizunik hartuko ikasleari praktikak egin bitartean, edo praktikak egiteko lekura edo handik etxerako bidean istripuren bat gertatzen bazaio. Mota horretako gorabeherak eta ikasleak liburutegian eragin ditzakeen kalteak estaltzeko, AUXILIAR DE BIBLIOTECA, SLU enpresak aseguruua egingo dio ikasleari. Aseguru-poliza horren banakapena hitzarmen honi erantsiko zaio.*

## **3. Datuak babestea:**

- *Erakunde laguntzaileak ez du praktiketako ikasleen datu pertsonalen inolako tratamendurik egingo, hitzarmen honen helburuak lortzeko beharrezkoa denetik harago. Era berean, honako konpromiso hauek ere hartzen ditu: ez dituela manipulatu, eraldatu edo ez dizkiela hirugarrenei lagako aipatutako datu horiek edo datu horiei dagozkien fitxategiak, bi alderdiek sinatutako harremanaren xede zehatzetik kanpo; konfidentzialtasun osoz jokatuko duela eta ikasleari jakinaraziko diola nola baliatzen dituzkeen datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta haiei aurka egiteko eskubideak. Hori guztia honako hauetan xedatutakoarekin bat etorrira: Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa; eta 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) eta hura garatzen duen araudia indargabetzen dituena. Erakunde laguntzaileak klausula betetzen ez badu —ez-betetzea zuzeneko edo zeharkakoa den aintzat hartu gabe—, praktiketari hartutako ikasleek izan ditzaketen kalte-galeren erantzukizun zuzena izango du.*

## **4. Konfidentzialtasun-klausula**

- *Praktikaldian dagoen pertsonak konpromisoa hartzen du konfidentzialtasunari, isilpekotasunari eta sekretu profesionalari eusteko agindutako eginkizunak betetzean eskuratu ahal izan duen informazioari eta/edo datuei dagokienez (pertsonalak, jabetza intelektualekoak edo bestelakoak), zuzenean edo zeharka. Ezingo ditu, inola ere, zabaldu, jakinarazi, transmititu edo hirugarrenen eskura jarri, ez kostu bidez, ez doan, ez badu,*



*behintzat, aldez aurretik **Tolosako Udalak** horretarako baimena idatziz ematen, eta datu horiek esleitutako funtzioak kudeatzeko bakarrik erabili beharko ditu.*

#### **5. Lan-arriskuen prebentzioa**

- *Kanpoko prebentzio-zerbitzuak segurtasunari eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudiaren berri emango dio praktikan dagoen pertsonari.*

#### **6. Indarraldia.**

- *Hitzarmenak 2022-05-30etik 2022-08-12ra arteko ondorioak izango ditu, eta, nolana ere, **Elizabeth Pérez Calvo** ikaslearen praktikek irauten duten aldirako izango da.*

#### **Az kentzeko arrazoiak.**

- *Hitzarmen hau hitzartutako denbora amaitzeagatik azkenduko da, eta alderdietako edozeinek deuseztatu ahal izango du alderdietako batek salatuz gero, aldez aurretik jakinarazita eta honako arrazoi hauetakoren batean oinarrituta:*
- *Enpresaren jarduerak amaitzea.*
- *Programatutako jarduerak garatu ezin izatea, ezinbesteko arrazoi batengatik.*
- *Hitzarmenean ezarritako klausulak ez betetzea, lanbide-praktikak egokiak ez izatea edo, programatutako jarduerari dagokienez, kasu bakoitzean indarrean dauden arauak urratzea.*
- *Alderdiek hala adostea.*

**BIGARRENA.**- . Onartzea praktikaldiaren ezaugarriak. Hauek dira:

- Praktikaldia Udaleko liburutegian izango dira ( haur zein helduena).
- Praktikaldiaren epea 2022ko maiatzaren 30etik 2022ko abuztuaren 12ra izango da.
- Ikaslearen tutorea Susana Larre Muñoz izango da.
- Akademiak proposatutako ikaslea Elisabeth Perez Calvo da.

**HIRUGARRENA.**- Akordioa Liburuzain laguntzaileen formaziorako Akademiari jakinaraztea.

### **3. TOLOSAKO GUDARI KALEA BERRURBANIZATZEKO TOLOSAKO UDALEAN AURKEZTUTAKO ABALA ITZULTZEA.**

<b>Kontratuaren xedea:</b>	Tolosako "Gudari kalea berrurbanizatzeko" izeneko proiektuan jasotako obrak.
<b>Kontratu mota:</b>	Obra
<b>Tramitazioa:</b>	Ohikoa
<b>Prozedura:</b>	Irekia
<b>Esleipenaren data:</b>	2018/05/28



**Eskatzailea:** Campezo Obras y Servicios SA (ordezkaria: Cristina Garcia Roldan)  
**Sarrera datak:** 2022/05/05 (sarrera zk. 2022-5363)  
**(erregistro elektronikoa)**  
**Espedienteak:** B.5.2.1./2018/0012  
2022H3440004

### AURREKARIAK

Tolosako Udalak, 2018ko maiatzaren 28an, Campezo Obras y Servicios SA enpresari esleitu zion Gudari kalea berrurbanizatzeko obra (Espedientea: B.5.2.1./2018/0012).

2018ko maiatzaren 10ean, Campezo Obras y Servicios SA enpresak 21.451,88€ko bermea jarri zuen.

2022ko maiatzaren 5ean, Campezo Obras y Servicios SA enpresak, Cristina Garcia Roldanek ordezkatuta, jarritako bermea itzultzeko eskaera egin zuen.

Aurkeztutako eskaeraren aurrean, 2022ko maiatzaren 10ean, hirigintzako udal ingeniariak txostena (JMO040) egin zuen eta, laburbilduz, honakoa dio: "(...)

#### **TXOSTENA**

*Administrazio Baldintza Zehatzen Pleguak, 25. idatz-zatian, esaten du: "urtebeteko berme epea jarri da, onarpen formala egiten denetik zenbatzen hasita, kontuan izanik enpresa lizitatzailleak epe luzeagoa proposa dezakeela."*

*Campezo Obras y Servicios, S.A.,k aurkeztutako eskaintzan, berme-epea hiru urtetakoa dela esaten du.*

*Obren harrera-akta 2019ko apirilaren 30ean sinatzen da*

*Esleipendunak kontratua behar bezala bete du, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan eta Obra proiektuan ezarritako baldintza guztiak bete ditu, eta, beraz, adierazitako kontratua erabat bete da. Era berean, ezarritako berme-epea amaitu da.*

#### **ONDORIOA**

*Aurrekoa kontuan hartuta, eta Sektore Publikoko Kontratuei burzuko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, jarritako **bermeak itzultzea proposatzen dut**".*



## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

### I. Aplikatu beharreko legeria honakoek ezartzen dute:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 107., 111. eta 243.3 artikulua eta bigarren xedapen gehigarria.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorren 65. eta 169. artikulua.

II. Kontratazio organoari dagokio kontratistak jarritako behin betiko bermea itzultzea (9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarria). Tolosako Udalarari dagokionez, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari dagokio, hortaz, organo horri dagokio jarritako behin betiko bermea itzultzeko onespena ematea.

## AZTERKETA JURIDIKOA

Aintzat harturik aurretiaz esandakoa, adierazi daiteke espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetzeari jarraitu diola; beraz, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren arabera, kontratazio organoari dagokio aurkeztutako abala itzultzeko erabakia hartzea.

Aurreko guztia ikusita, eta kontuan izanik udal teknikariak egindako txosten teknikoa, aplikatu beharreko lege-xedapenak, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea Campezo Obras y Servicios SA enpresari, Tolosako Gudari kalea berrurbanizatzeko Tolosako Udalean aurkeztutako abala itzultzea, bere kopurua honakoa delarik: hogeita bat mila lauhun eta berrogeita hamaika euro eta laurogeita zortzi zentimo (21.451.88 €).

**BIGARRENA.-** Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

ESKUA701a882-7cc9-439e-873c-ae099a42d2d6



**4 BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA «13.1 SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 37»  
AZPIESPARRUKO URBANIZATZEKO JARDUKETA-PROGRAMARI.**

<b>Esparrua:</b>	13. Laskoain
<b>Azpiesparrua:</b>	13.1 San Frantzisko pasealekua 37
<b>Eskatzailea:</b>	Jaitzubia Barri SL, Oihana Miren Urruticoechea Garciak ordezkatuta
<b>Sarrera data:</b> <b>(erregistro elektronikoz)</b>	2021/06/30 (2021-6487zk.) UJP dokumentua 2021/12/16 (2021-11014 zk.) UJP dokumentua zuzendua 2021/12/20 (2021-11123 zk.) Bermea 2022/05/10 (2022-5484 zk.) UJP dokumentua zuzenduta
<b>Espedientea:</b>	2021H1130003
<b>Erlazionatutako espedienteak:</b>	2021H1070002 – Xehetasun azterlana 2021H1140002 – Ituntze-hitzarmena

**AURREKARIAK**

<b>Dokumentua</b>	<b>Data/Zk.</b>	<b>Oharrak</b>
Urbanizatze Jarduketa Programa	2021/06/30	
<i>Xehetasun-Azterlanaren hasierako onespena TGBn</i>	<i>2021/09/07</i>	
Txosten teknikoa (JO21_039)	2021/10/18	Kontrakoa
Txosten teknikoa (JM21_057)	2021/10/25	Kontrakoa
Txosten juridikoa (MAU21_013)	2021/11/05	Kontrakoa
Udaleko Idazkari Akzidentalaren ziurtagiria TGBk hartutako erabakiaz	2021/11/10	Hasierako onespena ez ematea
Jakinarazpenak: Jaitzubia Barri SL eta San Frantzisko 35 jabekideak	2021/11/29	
Urbanizatze Jarduketa Programa	2021/12/16	Berria, eskatutako zuzenketekin
Urbanizazio kargen %1eko bermearen aurkezpena udalean	2021/12/20	
<i>Xehetasun-Azterlanaren behin betiko onespena TGBn</i>	<i>2022/01/27</i>	
Txosten teknikoa (JM22_005)	2022/01/31	Aldekoa, baldintzarekin
Aholkulari juridikoaren txostena	2022/02/09	Aldekoa, baldintzarekin
Txosten juridikoa	2022/02/10	Aldekoa, baldintzarekin
Tokiko Gobernu Batzarrerako akordio-proposamena	2022/02/10	Aldekoa, baldintzarekin
Udaleko Idazkariaren ziurtagiria	2022/02/17	





TGBk hartutako erabakiaz

Jakinarazpenak interesdunei	2022/02/22	
Espedientearen informazio publikoa:		
Iragarkia GAO	2022/03/14 (49 zk.)	
Iragarkia Berria egunkarian	2022/03/16	
Iragarkia Tolosaldeko Atarian	2022/03/16	
Iragarkia Diario Vasco egunkaria	2022/03/17	
Iragarkia udaletxeko iragarki taulan	2022/03/14-	
Iragarkia udaletxeko web gunean	2022/04/12	
	2022/03/14	
Txosten juridikoa (MAU22027)	2022/05/03	Informazio publikoari buruzkoa
Urbanizatze Jarduketa Programa	2022/05/10	Berria, eskatutako zuzenketekin
Udaleko idazkariaren ziurtagiria	2022/05/19	Informazio publikoari buruzkoa
Txosten teknikoa (JM22022)	2022/05/19	Aldekoa, oharrarekin

- 2022ko maiatzaren 19ko hirigintza buruaren txostenean (JM22022), laburbilduz, honakoa dio:

“(…)

## **2.- AZTERKETA TEKNIKO:**

*Jaitzubia Barri SLk, Oihana Miren Urruticoechea Garciak ordezkatuta, Udalean aurkeztu du urbanizatze jarduketa-programaren (UJP) dokumentu berria (eskatutako zuzenketekin eta dokumentuekin).*

*Honako eduki hau dauka aurkeztutako UJP dokumentu berriak:*

- 1. Memoria justifikatiboa, egikaritze-programazioarekin.*
- 2. Urbanizatze-proiektua.*
- 3. Ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketa.*
- 4. Planoak.*

***Dokumentuaren edukiak bat egiten du lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 155. artikulua eskatutako agiriekin.***

### **2.1.- TXOSTENAREN HELBURUA:**

*Txosten honen helburua dokumentua aztertzea da, aurkeztutako Urbanizatze Jarduketa Programari behin betiko onespena eman aurretik.*

### **2.2.- PROGRAMAREN XEDEA ETA EREMU**

*Dokumentuaren memorian adierazten denez, beharrezkoa da UJP izapidetzea, eta honako justifikazio hau jasotzen da:*





- “a) La identificación de la actuación integrada, con la delimitación de la unidad de ejecución que constituye su objeto.  
b) El régimen de la ejecución y su sistema de actuación.  
c) Las determinaciones jurídicas, técnicas y económicas de ejecución de la actuación integrada y, en todo caso, la regulación de sus contenidos mínimos.  
d) La totalidad de las obras a realizar y de las cargas de urbanización y la estimación aproximada de su coste.  
e) El programa temporal de ejecución de las obras de urbanización y de edificación”.

**Beraz, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 152.1 artikulua araberako UJPk jaso behar dituen zehaztapenak betetzen dira.**

### **2.3.- EGITURAZKO ANTOLAMENDUA ETA XEHATUA BETETZEA**

Urbanizatzeko jarduketako programak ezin izango dute inola ere aldatu dagokion plangintzan ezarritako egiturazko antolamendua edo antolamendu xehatua. Hala ere, Egikaritze Unitateak aldatzeko aukerari eusten zaio, legean ezarritakoaren arabera.

Tolosako HAPOK, 2009ko martxoaren 3an behin betiko onartu zenak, 13.1 azpiesparruaren (San Frantzisko pasealekua 37) egiturazko antolamendua eta antolamendu xehatua ezartzen ditu.

Bestalde, 2022ko urtarrilaren 27an, behin betiko onartu zen azpiesparruaren xehetasun-azterlana, esparruaren antolamendu xehatua zehaztea helburu duena. Horretarako, lerrokatutako eta sestrak zehaztu eta HAPON ezarritako hegala aldatu dira, besteak beste.

**Aurkeztutako dokumentuak azpiesparrurako onartutako egiturazko antolamendua betetzen du, baita aipatutako Xehetasun Azterlana ere.**

### **2.4.- EDUKI TEKNIKO ETA URBANISTIKOA. URBANIZAZIO-AURREPROIEKTUA**

Aurkeztutako aurreproiektuak lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 153. artikuluan zehaztutako edukia betetzen du, eta eskatutako aldaketak sartu ditu.

### **2.5.- ESPARRUA GARATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA; URBANIZAZIO- ETA ERAIKUNTZA-OBREN EPEAK ETA FASEAK**

Hona hemen dokumentuaren eduki juridiko-urbanistikoaren 3.4 eta 3.5 ataletan proposatutako programazioa:

“- Presentación del Convenio de Concertación ante el Ayuntamiento de Tolosa junto al presente PAU en el Ayuntamiento de Tolosa.



- *Presentación del Proyecto de Reparcelación de Propietario Único del subámbito «13.1. Paseo San Francisco 37» del AAI N.º 7 del PGOU de Tolosa en un plazo máximo de tres (3) meses desde la aprobación inicial del PAU.*

(...)

- *Plazo para la presentación del Proyecto de Urbanización: Se presentará en un plazo máximo de tres (3) meses desde la aprobación inicial del PAU.*

- *Plazo para el inicio de las obras de urbanización: Teniendo en cuenta que las obras de urbanización y edificación serán simultáneas, las obras de urbanización se iniciarán al mismo tiempo que las de edificación y en un plazo máximo de un (1) mes desde la concesión de la licencia de edificación.*

- *Plazo para finalizar las obras de urbanización: Se finalizan en un plazo máximo de treinta (30) meses desde la licencia de edificación pues las obras de urbanización no podrán terminarse hasta que no se terminen las obras de edificación.*

- *Plazo para solicitar la licencia de edificación: Deberá solicitarse en un plazo máximo de un (1) mes desde la aprobación definitiva del proyecto de urbanización.*

- *Plazo para iniciar las obras de edificación: Deberán iniciarse en un plazo máximo de un (1) mes desde la licencia de obras.*

- *Plazo para finalizar las obras de edificación: Se finalizan en un plazo máximo de treinta (30) meses desde la licencia de edificación.*

*Kronograma ere erantsi da, aurreikusitako gehieneko epeekin:*

	2021	2022												2023												2024												2025											
	XII	I	II	III	IV	V	VI	VII	VIII	IX	X	XI	XII	I	II	III	IV	V	VI	VII	VIII	IX	X	XI	XII	I	II	III	IV	V	VI	VII	VIII	IX	X	XI	XII												
Ap. Def. del ED																																																	
Ap. Inicial del PAU																																																	
Presentación del CONVENIO																																																	
Presentación del PI																																																	
Plazo para presentación del PUR																																																	
Ap. Def. del PUR																																																	
Plazo para iniciar las obras de urb.																																																	
Plazo para finalizar las obras de urb.																																																	
Plazo para solicitar licencia de edificación																																																	
Licencia de edificación																																																	
Plazo para iniciar las obras de edificación																																																	
Plazo para finalizar las obras de edificación																																																	

*UJPK urbanizazio- eta eraikuntza-fase bakarra ezartzen du.*



## **2.6.- UDALARI DOAN LAGA BEHARREKO LURZATIEN PROPOSAMENA ETA EKONOMIA- ETA FINANTZA-BIDERAGARRITASUNARI BURUZKO AZTERLANA**

Ekonomia- eta finantza-bideragarritasun azterlanean zehazten dira lurzoruaren eragin-balioa eta komunitateak hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan duen partaidetzaren balioa. Memoriaren 3.5. puntuaren arabera, 176.992,34 €-ko zenbatekoa duen Lurzoruaren Hondar-balioaren % 15 monetarizatzea proposatzen da Baina balio horiek eguneratu egin beharko dira horiek eragiten dituen tresna onartzeko prozedura hasten den egunean, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 34. artikuluaen arabera. **Beraz, balio horiek eta homogeneousazio-koefizienteak Birpartzelazio Proiektuan berrikusi eta justifikatu beharko dira.**

## **2.7.- URBANIZATZEKO JARDUKETA-PROGRAMAK ALDERDI BATEK ESKATUTA IZAPIDETZEA**

Programak jarduketa integratuaren esparruko urbanizazio-kargetarako aurreikusitako kostuaren % 1i dagokion bermea eratu dute (4.591,25 €). Lurzoru Legeko 158. artikuluaen arabera, urbanizazio obren gastuei dagokien %1ekoa da ezarri beharreko bermea. Baina aurkeztu den bermea handiagoa denez, onargarria da Kontuhartzaitzatik adierazitakoaren arabera.

**Bestalde, eraikinaren eraispén obren gastua urbanizazio obren gastuen barnean txertatzeko eskatu zen. Eta zuzenketa hori barneratu da.**

## **2.8.- TXOSTEN JURIDIKOA**

Dagokion txosten juridikora jotzen da, gainerako gai juridikoei dagokienez.

## **3.- ONDORIOA**

Beraz, aurreko ataletan azaldutakoaren arabera, honako hau PROPOSATZEN DA:

**LEHENA.- BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko urbanizatzeko jarduketa programari (2022ko maiatzaren 10ean aurkeztutakoa)**

**BIGARRENA.-** Ohartaraztea homogeneousazio-koefizienteak eguneratu egin beharko direla arrazoitzen dituen proiektua hasten den egunean eta, hortaz, aipatutako homogeneousazio-koefizienteak birpartzelazio proiektuan berrikusi eta justifikatu beharko dira. Beraz, Udalarri dagokion % 15eko partaidetza eguneratuko da koefiziente horietan xedatutakoaren arabera.



**HIRUGARRENA.-** *Dagokion txosten juridikora jotzen da, gainerako gai juridikoei dagokienez”.*

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

### I. Urbanizatzeko jarduketa-programari behin betiko onespena emateko prozedura.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 152. artikuluan araututakoaren arabera, bizitegirako hiri-lurzoru finkatugabearen jarduketa integratuen garapena eta exekuzioa arautzea eta antolatzea Urbanizatzeko Jarduketa Programaren (UJP) bidez egin behar da. Honela, aipatutako legeak 152-158. artikuluetan UJP izapidetu ahal izateko beharrezkoa den edukia, agiriak eta izapidetza zehazten ditu.

Hain zuzen, honakoa arautzen da 155. artikuluan Urbanizatzeko Jarduketa Programaren behin betiko onespeneri buruz:

*“4.– Alegazioren bat baldin badago, horiek jaso, ikusi eta aztertu ondoren, udalak behin betiko onespena emango dio urbanizatzeko jarduketa-programari gehienez ere bi hilabeteko epean, hasierako onspen-erabakia lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita. Epe hori erabakirik eman gabe bukatzen denean, behin betiko onartu dela iritziko zaio, betiere interesdunei jakinarazteko tramitea burutu baldin bada.*

**5.– Urbanizatzeko jarduketa-programaren behin betiko onspenari buruzko erabakia edo presuntziorako egintza lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da, eta, horrekin batera, baita edukien laburpen bat ere. Laburpenean honako hauek jasoko dira, gutxienez: eremuaren identifikazioa, sailkapena eta kalifikazioa; eremuari izendatutako hirigintza-eraikigarritasuna; jarduketa-sistema; aurrekontua; eta urbanizatze lanak eta, hala badagokio, eraikuntzakoak egikaritzeko programazioa”.**

### II. Urbanizatzeko jarduketa-programari onespena emateko organo eskuduna.

Alkatetzari dagokio UJPri onspena ematea (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.j) artikulua). Tolosako Udalarri dagokionez, ordea, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaion 2019/1228 Alkatetza Dekretuz; hortaz, organo horri dagokio UJPren behin betiko onspena ematea.



## AZTERKETA JURIDIKOA

«13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko Urbanizatzeko Jarduketa-Programa onartzeko espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetzeari jarraitu dio, beraz, behin betiko onespena eman daiteke.

Hala eta guztiz ere, UJPren memoriaren eduki juridiko-urbanistikoaren 3.6 atalean ez da guztiz arrazoituta gelditu, hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan Udalak duen partaidetzari buruz egindako proposamenean, zergatik egin behar den dirutan aurreikusitako eraikigarritasunaren lagapena eta ez orube baten edo partzela eraikigarri baten jabetza betea eskuratuta. Beraz, nahitaezkoa izango da hori behar bezala arrazoitzea birpartzelazio-proiektuan.

Aurreko guztia ikusita, eta kontuan izanik udal teknikariek egindako txosten teknikoak zein juridikoa, aplikatu beharreko lege-xedapenak, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Behin betiko onespena ematea «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko urbanizatzeko jarduketa programari (2022ko maiatzaren 10ean aurkeztutakoa).

**BIGARRENA.-** Ohartaraztea homogeneizazio-koefizienteak eguneratu egin beharko direla arrazoitzen dituen proiektua hasten den egunean eta, hortaz, aipatutako homogeneizazio-koefizienteak birpartzelazio proiektuan berrikusi eta justifikatu beharko dira. Beraz, Udalari dagokion % 15eko partaidetza eguneratuko da koefiziente horietan xedatutakoaren arabera.

Honetaz gain, beharrezkoa izango da birpartzelazio-proiektuan behar bezala arrazoitzea, hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan Udalak duen partaidetzari buruz egindako proposamenaren arabera zergatik egin behar den dirutan aurreikusitako eraikigarritasunaren lagapena eta ez orube baten edo partzela eraikigarri baten jabetza betea eskuratuta (2/2006 Legea 27.5. artikulua).

**HIRUGARRENA.-** Behin betiko onspen erabaki hau, edukien laburpena barne, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Halaber, Udalaren iragarki taulan zein egoitza elektronikoa ere eskuragarri jartzea.



**LAUGARRENA.-** Erabakia jarduketak eragindako ondasunen eta eskubideen titularrei jakinaraztea.

**5. BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA «13.1 SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 37» AZPIESPARRUKO URBANIZATZE JARDUKETA PROGRAMA EGIKARITZEKO HIRIGINTZA-HITZARMENARI.**

**Esparrua:** 13. Laskoain  
**Azpiesparrua:** 13.1 San Frantzisko pasealekua 37  
**Eskatzailea:** Jaizubia Barri SL (ordezkaria: Oihana Miren Urruticoechea García)  
**Sarrera datak:** 2021/06/30 (2021-6487 zk.)  
**(erregistro elektronikoa):** 2021/12/16 (2021-11015 zk.)  
**2022/03/14 (2022-3317 zk.)**  
**Espedientea:** 2021H1140002

**AURREKARIAK**

Dokumentua	Data/Zk.	Oharrak
Kontzertazio Hitzarmen proposamena	2021/06/30	
Kontzertazio Hitzarmen proposamena zuzenduta I	2021/12/16	
Udaleko idazkariaren ziurtagiria, TGBk hartutako erabakiaz	2022/02/17	Urbanizatzeko Jarduketa Programaren hasierako onespena, baldintzatua
Kontzertazio Hitzarmen proposamena zuzenduta II	2022/03/14	
Aholkulari juridikoaren txostena	2022/03/15	Aldekoa
Txosten juridikoa	2022/03/16	Aldekoa
Tokiko Gobernu Batzarrerako akordio proposamena	2022/03/16	Aldekoa
Udaleko idazkariaren ziurtagiria TGBren erabakiari buruzkoa	2022/03/23	Hasierako onespena ematea
Jakinarazpena interesdunei	2022/03/29	
Espedientearen informazio publikoa:		
Iragarkia GAO	2022/04/04 (64 zk.)	
Iragarkia Berria egunkarian	2022/04/07	
Iragarkia Diario Vasco egunkaria	2022/04/07	
Iragarkia Tolosaldeko Atarian		
Iragarkia udaletxeko iragarki taulan	2022/04/07	
Iragarkia udaletxeko web gunean	2022/04/04-	

ESKUA701a882-7cc9-439e-873c-ae099a42d2d6



	2022/05/05	
	2022/04/04	
Urbanizazio kargen % 7ko bermearen aurkezpena Udalean	2022/04/08	
Txosten juridikoa (MAU22038)	2022/05/17	Informazio publikoari buruzkoa
Udaleko idazkariaren ziurtagiria	2022/05/19	Informazio publikoari buruzkoa

### ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 160. artikuluan arautzen da hitzarmen-sistema zein sistema horren bitartez jardun ahal izateko hitzarmenak izan beharreko gutxieneko edukia (artikulu horretan berariaz xedatu gabeko guztian, zazpigarren xedapen gehigarrian araututakoa jarraitu behar da). Horrela, artikuluko bereko 5. puntuan honakoa adierazten da:

***“Hitzarmen-batzarra eratzea ez da beharrezkoa izango eragindako lurrazal guztia jabe bakarrarena baldin bada. Orduan, jabeak bereganatuko ditu lege honek batzarrari ezarritako betebeharrak guztiak eta hitzarmena ere hark sinatuko du”.***

II. Alkatetzari dagokio «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko UJP egikaritzeko hirigintza hitzarmenaren behin betiko onespina ematea (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.j) artikulua). Tolosako Udalarari dagokionez, ordea, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaion 2019/1228 Alkatetza Dekretuz; hortaz, organo horri dagokio behin betiko onespina ematea.

### AZTERKETA JURIDIKOA

«13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko urbanizatzeko jarduketa programa egikaritzeko hirigintza hitzarmena onartzeko espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetzari jarraitu dio, beraz, behin betiko onespina eman daiteke. Hala ere, behin betiko onespina eman ahal izateko, beharrezkoa izango da aurretiaz Urbanizatzeko Jarduketa Programari behin betiko onespina ematea.

Bestalde, aipatu beharra dago adierazitako azpiesparrua jabe bakar batena dela, Jaitzubia Barri SL eskatzailearena, alegia; eta, hortaz, 2/2006 Legearen 160.5 artikulua araberak, ez da beharrezkoa hitzarmen-batzarra eratzea. Hori dela eta, Jaitzubia Barri SL enpresak bereganatuko ditu 2/2006 Legearen batzarrari ezarritako betebeharrak guztiak, eta hitzarmena ere berak sinatuko du.

Aurreko guztia ikusita, eta kontuan izanik udal teknikariek egindako txosten teknikoak zein juridikoa, aplikatu beharreko lege-xedapena eta udal teknikariak egindako





proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Behin betiko onespena ematea «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko urbanizatzeko jarduketa programa egikaritzeko hirigintza hitzarmenari.

**BIGARRENA.-** Ohartaraztea behin betiko onespena eman ahal izateko beharrezkoa dela aurretiaz Urbanizatzeko Jarduketa Programari behin betiko onespena ematea.

**HIRUGARRENA.-** Adieraztea "13.1 San Frantzisko pasealekua 37" azpiesparruaren jabe bakarra Jaitzubia Barri SL eskatzailea denez, 2/2006 Legearen 160.5 artikulua araberan, ez dela beharrezkoa hitzarmen-batzarra eratzea, Jaitzubia Barri SL bereganatuko baititu 2/2006 Legearen batzarrari ezarritako betebeharrak guztiak, eta hitzarmena ere berak sinatuko baitu.

**LAUGARRENA.-** Ebazpena espedientearen sustatzaileari zein ondasun eta eskubideen titularrei jakinaraztea.

## **6. ONARTZEA ZUMARDIAUNDIAN GURPILGUNEA DEITURIKO PROIEKTUA GAUZATZEKO JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA BAIMENTZEA ZUMARDI ELKARTEARI.**

### **AURREKARIAK:**

2022ko apirilaren 4an Hirigintza Departamentutik ondorengo espedientea helarazten zaio Idazkaritza Departamentuari: "Zumardi Elkarteak eskatuta Zumardiandin Bizikleta berrerabiltzeko gunea sortzekoa".

2022ko urtarrilaren 26an, Ingurumen eta Landa eremuko Teknikariak txostena egin zuen gai honi buruz. Bertan, zera proposatu du: Zumardi Elkarteari baimentzea 50 metro karratuko azalera duen jabari publikoko lurzuaren erabilera pribatiboa ematea Zumardi andi parkean.

Okupazio horren helburuak azaldu ditu:

*"1. Zabortegetan dauden edota erabiltzen ez diren bizikleta zaharrak berreskuratzea: hondakinak gutxitzea.*

*2. Bizikletak konpondu eta bigarren bizitza bat ematea: berrerabilpena bultzatzea.*



3. *Bigarren eskuko bizikleten konponketa gunea sortzea, pertsona interesatuak bere bizikleta konpontzera eramateko.*

4. *Bigarren eskuko bizikleta eta bizikleta piezen truke gunea sortzea: berrerabilpena eta birziklapena Sustapena.*

5. *Baztertze arriskuan dauden kolektiboei zuzendutako bizikletak konpontzeko ikastaroa antolatzea eta gunearen kudeaketan parte hartzea: ikuspegi zirkularreko sektorean zailtasunak dituzten pertsonen enplegarritasuna sustatzea.*

6. *Baztertze arriskuan dauden edota mugikortasun arazoak dituzten kolektiboei bizikletak prestatzeko sistema diseinatu, antolatu eta kudeatzea.*

Hauek dira herritarrei ekarriko dioten onurak txosten horren arabera:

1. Bizikleta duten eta bizikletan maiz aritzen diren herritarrak baina beraiek bizikleta konpondu nahi dutenak edo konpontzen ikasi nahi dutenak.

2. Bizikleta ez duten herritarrak baina ekonomikoki eta ingurumen ikuspegitik bizikleta berria erosi nahi ez dutenak

3. Bizikleta mundura gerturatu nahi duten herritarrak, inoiz bizikletak ibili ez direnak helduak, emakumezkoak, atzerritarrak, etab.

Ikusi daitekeenez proiektuarekin lortu nahi diren helburuak bat datoz Ingurumen sailak dituen helburuekin eta Tolosatzen 2017-2027 plangintzaren ondorengo ekintzekin.”

#### **OINARRI JURIDIKOAK:**

**LEHENA.** Toki-entitateetako ondasunak bitan banatzen dira: jabari publikoko ondasunak eta ondare-ondasunak edo propioak.

1372/1986 Errege Dekretuak, ekainaren 13koak, toki erakundeen ondasunen erregelamendua onartzen duenak, bere 3.artikuluaren honela dio: “Son bienes de uso público local los caminos, plazas, calles, paseos, parques, aguas de fuentes y estanques, puentes y demás obras públicas de aprovechamiento o utilización generales cuya conservación y policía sean de la competencia de la entidad local...”

Kasu honetan, Zumardiandi parkeea ondarea jabari publikoko da. Horrela dago deskribituta inbentarioan:



*Nombre de la finca: Zumardiandia*

*Fecha de adquisición: 1623*

*Descripción y linderos: Parcela de terreno de forma irregular conocida como Prado Grande, sita en el valle del río Elduarain. Ocupa una superficie de 14.846 metros cuadrados. Linda al norte con con la regata Elduarain, al sur con la calle Igeralde y con la casa Zubizarreta; al Este con la regata Berástegui*

*Superficie inventariada: 14.846 metros cuadrados.*

*Título por el que se atribuye: Desde tiempo inmemorable.*

*Naturaleza del dominio: Uso público.*

*Destino: Parque urbano.*

**BIGARRENA.** Aplikagarria den legedia:

- 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, toki erakundeen ondasunen erregelamendua onartzen duena.

- 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa.

- Herri Ondareei buruzko 1372/86 Erregelamendua, 1986ko ekainaren 13koa, Administrazio Publikoen ondareei buruzko 33/2003 Legea, azaroaren 3koa garatzen duena.

- Herri Ondareei buruzko 1372/86 Erregelamendua, 1986ko ekainaren 13koa (75.artikulua):

*“En la utilización de los bienes de dominio público se considerará:*

*1. Uso común, el correspondiente por igual a todos los ciudadanos indistintamente, de modo que el uso de unos no impida el de los demás interesados, y se estimará:*

*a) General, cuando no concurren circunstancias singulares.*

*b) Especial, si concurrieran circunstancias de este carácter por la peligrosidad, intensidad del uso o cualquiera otra semejante.*

*2. Uso privativo, el constituido por la ocupación de una porción del dominio público, de modo que limite o excluya la utilización por los demás interesados.*

*3. Uso normal, el que fuere conforme con el destino principal del dominio público a que afecte.*

*4. Uso anormal, si no fuere conforme con dicho destino.”*

Administrazio Publikoen ondareei buruzko 33/2003 Legea, azaroaren 3koa. (85 artikulua):

“Tipos de uso de los bienes de dominio público.



1. *Se considera uso común de los bienes de dominio público el que corresponde por igual y de forma indistinta a todos los ciudadanos, de modo que el uso por unos no impide el de los demás interesados.*
2. *Es uso que implica un aprovechamiento especial del dominio público el que, sin impedir el uso común, supone la concurrencia de circunstancias tales como la peligrosidad o intensidad del mismo, preferencia en casos de escasez, la obtención de una rentabilidad singular u otras semejantes, que determinan un exceso de utilización sobre el uso que corresponde a todos o un menoscabo de éste.*
3. *Es uso privativo el que determina la ocupación de una porción del dominio público, de modo que se limita o excluye la utilización del mismo por otros interesados.”*

Administrazio Publikoen ondareei buruzko 33/2003 Legea, azaroaren 3koa:

*“2. El aprovechamiento especial de los bienes de dominio público, así como su uso privativo, cuando la ocupación se efectúe únicamente con instalaciones desmontables o bienes muebles, estarán sujetos a autorización o, si la duración del aprovechamiento o uso excede de cuatro años, a concesión.” (86.2 artikulua).*

*92.3. artikulua: “Las autorizaciones habrán de otorgarse por tiempo determinado. Su plazo máximo de duración, incluidas las prórrogas, será de cuatro años.*

*92.4. artikulua:” Las autorizaciones podrán ser revocadas unilateralmente por la Administración concedente en cualquier momento por razones de interés público, sin generar derecho a indemnización, cuando resulten incompatibles con las condiciones generales aprobadas con posterioridad, produzcan daños en el dominio público, impidan su utilización para actividades de mayor interés público o menoscaben el uso general.”*

*92.5.artikulua:” Las autorizaciones podrán ser gratuitas, otorgarse con contraprestación o con condiciones, o estar sujetas a la tasa por utilización privativa o aprovechamiento especial de bienes del dominio público estatal regulada en el capítulo VIII del título I de la Ley 25/1998, de 13 de julio, de Modificación del Régimen Legal de las Tasas Estatales y Locales y de Reordenación de las Prestaciones Patrimoniales de Carácter Público, o a las tasas previstas en sus normas especiales.”*

**Organu eskuduna:** Tokiko Gobernu Batzarra da.

Horrela dio 1228 Alkate Dekretuak bere 1.d.artikuluari: “lokalak doan lagatzea, edo jabari publikoko lokalen erabilera baimentzea urtebeteko epea gaudituz gero”. (Antzekotasunagatik, kasu honetan aplikatu daiteke).



Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea Zumardi Elkarteari, demaniozko baimena ematea Tolosako Zumardiandian 30 metro karratuko aurrefabrikatutako 2 modulu kokatzeko eta 20 metro karratuko espazio irekian jarduerak garatzeko. Instalaturako moduloek neurria hauek izango dituzte: 6 metroko luzera, 2,4 m-ko zabalera eta 2,6m-ko altuera .

**BIGARRENA.-**Demaniozko baimen hori Zumardiandian gurpilgunea deituriko proiektua gauzatzeko ematea, baina baldintza honekin: okupazioarekin aurrera eraman nahi den jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren baldintzak bete beharko dituzte.

**HIRUGARRENA.-**Erabilaren ezaugarri hauek finkatzea: dohain ematea eta gehienez lau urterako.

**LAUGARRENA.-** Erabilpen baldintza hauek ezartzea:

- Nahiz eta gehienez, lau urterako eman, okupaturako lurra libre utzi beharko da Tolosako Udalak hala eskatzen badu, beti ere hiru hilabeteko aurrerapenarekin jakinarazi beharko delarik libre uzteko erabaki arrazoitua. Beraz, baimena era prekarioan ematen da eta interés publikoko zirkunstantziak justifikatuta, udalak epe muga baino lehen, baimena bertan behera utzi ahal izango du indemnitaziorik gabe. Kasu horretan, hala ere udalak beste kokapen bat bilatzen saiatuko da proiektua jarraitu dezan eta baimenduari bi hilabeteko epea emango dio instalazioak kentzeko jakinarazpena jasotzen duenetik.
- Ingurumen eta Landa eremuko udal teknikariak urte amaierako txostena egin beharko du, baimendutako espazioak adierazitako helburuen arabera erabilera izan duela eta baldintza egokitan daudela egiaztatzeko. Txostena negatiboa balitz, erabilpen baimen hau berehala bertan behera uzteko arrazoia izango litzateke.
- Era berean, bertan behera geldituko da baimena zarata edo kalteei buruzko denuntzia arrazoiturik baleude eta hauek egiaztatuta geldituko balira.
- Erabilpen baimen honek doaneko izaera duenez gero, ez da inolako kanon ekonomikorik ordaindu beharrik izango.
- Zumardi Elkarteari baimen honen ondorioz dituen eskubide eta betebeharrak ezin izango dira transferitu, ezta eskualdatu ere.



- Erabiltzailearen kargura izango dira elektrizitate-kontsumo, ur, gas, zabor eta gainerakoengatik eragindako gastuak egongo balira.
- Erabiltzailearen ardurak izango dira okupatutako espazioak garbitzea, kontserbatzea eta zaintzea, eta egoki diren ohizko konponketak egitea. Udala inolaz ere ez dago aurreko eginkizun horietan laguntzera behartuta eta eskubidea izango du ikuskapenak egiteko erabiltzaileak dituen eginbeharrak zuzen betetzeri dagokienez. Era berean, Udalak ahalmena izango du erabiltzaileari baimen honen, erabileraren eta legearen arabera betetzea dagokiona galdatzeko.
- Erabiltzaileak konpromisoa hartuko du utzitako espazioan material kaltegarri, osasungaitz edo arriskutsurik ez gordetzeko, eta jarduerak eragin ditzakeen ondorio negatiboak eragozteko bidezko diren neurri zuzentzaileak hartzeko.
- Baimen hau amaitzean, erabiltzaileak kontserbazio eta erabilera egoera egokian itzuliko du okupatutako espazioa.
- Baimena dutenek erantzun egin beharko dute egiten duten jardueraren ondorioz, edo soilik espazioa okupatzearen ondorioz egindako kalteengatik (dela pertsoneri dela ondasunei egindakoak). Alde horretatik, ondasunei edo hirugarrenei egindako kalteengatik erantzungo dute. Horretarako, erantzunkizunezko-poliza egin behar dute higiezinei, pertsoneri edo hirugarren batzuei egindako kalteen aurrean erantzuteko eta gutxieneko kopurua 300.000 eurokoa izango da. Lurzoruaren kalteak egiten badira, hauek konpondu beharko dira. Okupazioa amaitzerakoan lur zorua era egokian itzuliko dio udalari. Hau bermateko 1.500ko fidantza jarri beharko du.
- Baimen honek erregulatzen ez duen hartan, oro har, gizalegez jokatu behar da.

**BOSTGARRENA.**- Ingurumen eta Landa eremuko Teknikariak bere txostenean jarritako baldintza hauek ezartzea:

- Edozein modutan moduluak hiru metroko distantzia gorde beharko dute bidegorriaren ertzerara.
- Gehienez 50 metro karratu okupatu beharko dute eta aurkeztutako dokumentazioan duen kokapena errespetatu beharko da beti.
- Argindarra, ura eta saneamendu zerbitzuak bertan aurkitzen dira. Hala ere, moduluetara zerbitzuak konektatzeko behar diren obrak edo instalazioak Zumardi Elkartek bere gain hartu beharko ditu, hala dagokionean, aurrez baimena eskuratua. Kasu honetan zerbitzu teknikoan irizpideak jarraitu beharko ditu.



Zerbitzuei edo obrei dagozkien edozein gastu Zumardi Elkarteak bere gain hartuko ditu.

- Okupatutako eremu publikoa eta bere ingurua garbi eta modu egokian mantendu beharko dira.
- Gurpilguneak bizikletak konpontzeko tailer txiki izango duenez, jarduera hori garatzeko beharrezkoak diren baldintzak eskuratu beharko ditu bere kargura.
- Aplikagarri diren zerga, tasa eta gainerako tributuak ordainduko ditu.

**SEIGARRENA:** Ebazpen honen berri interesatuari eta Ingurumen Departamentuari ematera.

## **7. ONARTZEA TOLOSAKO USABALGO 3. FASEARI DAGOKION KIROL INSTALAKUNTZEN ETA HIRITARTZE OSAGARRIARI DAGOKION OBREN LIZITAZIOA HUTS DEKLARATZEA.**

### **I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Kontratuaren xedea Tolosako Usabalgo 3. faseko kirol instalazioen eta urbanizazio osagarriaren obrak.

Unitate sustatzailea Hirigintza Azpisaila  
Espedientea 2022OASI0003

### **II.- AURREKARIAK**

Lehena.- Espedientea eta administrazio baldintza partikularren zein preskripzio tekniko partikularren pleguak 2022ko apirilaren 5ean onartu zituen Tokiko Gobernu Batzarrak; lizitazioaren deialdia, berriz, 2022ko apirilaren 7an argitaratu zen Euskadiko Kontratatzailearen Profilean.

Bigarrena.- Proposamenak aurkezteko epean NERCO INFRAESTRUCTURAS, S.L. (B53926606) enpresak bakarrik aurkeztu zuen proposamena.

Hirugarrena.- 2022ko maiatzaren 10ean kontratazio mahaia bildu zen lizitazioaren "A" gutun-azala irekitzeko.

Laugarrena.- 2022ko maiatzaren 17an kontratazio mahaia bildu zen "C" gutun-azala irekitzeko. Bertan ikusi zen aurkeztutako enpresa bakarrak lizitazio-prezioa baino prezio handiagoa eskaini zuela. Ondorioz, kontratazio-mahaia erabaki zuen NERCO INFRAESTRUCTURAS, S.L. (B53926606) enpresa lizitaziotik kanpo uztea eta





kontratuaren lizitazioa huts deklaratzeko, aurkeztutako proposamenak ez zuelako BAPPn ezarritakoa betetzen.

Aurreko guztia aintzat harturik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Huts deklaratzeko erreferentziako obra-kontratuaren lizitazioa, 2022ko maiatzaren 17an kontratazio mahaiak proposatutakoari jarraituz.

**BIGARRENA.**- Huts deklaratzeko berri Kontratazailearen Profilean iragartzea.

**HIRUGARRENA.**- Erabakia enpresa lizitazileari, Hirigintza Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari jakinaraztea.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 12:15ean.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2022IGBA0012-2022-05-24Gobernu batzarra akta/2022-05-24Gobernu batzarra